


MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**



**Jean Louis
Davant
Iratzabal**



33

MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA

**Jean Louis
Davant
Iratzabal**



2016



**EUSKO
IKASKUNTZA**

Egilea: Battittu Coyos



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura
Sculpture en bronze de Remigio Mendiburu

COYOS, Battitu

Jean Louis Davant Iratzabal / Battittu Coyos. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2017. – 52 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria = Prix Manuel Lekuona ; 33). – Testuak euskaraz eta frantsesez. – Manuel Lekuona Saria 2016.

ISBN: 978-84-8419-278-7

1. Jean Louis Davant Iratzabal – biografia 2. Bibliografia – Jean Louis Davant Iratzabal
I. Eusko Ikaskuntza II. Saila III. Izenb.

Photo de couverture. Azaleko argazkia: Argazkilaria: Juantxo Egaña.
Euskaltzaindiaren artxiboa.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurларitza, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

EUSKO IKASKUNTZA – SOCIÉTÉ D'ÉTUDES BASQUES

Miramar Jauregia – Miraconcha, 48 – 20007 Donostia

<http://www.eusko-ikaskuntza.eus> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ISBN: 978-84-8419-278-7

D.L. SS-206-2017

Fotokonposaketa, inprimaketa eta koadernaketa: Antza S.A.L., Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

Datu biografikoak	5
Données biographiques	15
Une gogoangarriak	29
Moments mémorables	29
Bibliografia / Bibliographie	41



Hautzaro zoriontsua Zuberoan

Jean Louis Davant Ürrüstoi-Larrabilen (Zuberoa) sortu zen, 1935eko uztailaren 5ean, Larrabileko Zabalaina laborari etxean. Bere aita, Marti Davant (1903-1997), larrabiltarra zen, Zabalaineko jabea. Ama, Mailüsa Iratzabal (1904-1998), zuberotarra zen ere bai, Altzaiko Üstübileko azken alaba. Biak laborariak ziren. Lau haur izan zituzten, Janpierra (1933), Jean Louis, Aña (1936) eta Dominika / Txomin (1943).

Jean Louis-k kontatzen du:

Hautzaro zoriontsua bizi izan dut etxondoan, sorterriko Larrabile auzunean. Euskaraz mintzo ginen beti familian eta herrian. Frantsesez ikasten hasi nintzen sei urteetan, herriko eskola publikoan sartu nintzelarik, ene lagun guziak bezala.

Ikasketak

Oinarrizko ikasketak Ürrüstoiko eskola publikoan egin zituen (1941-1947). *“Ikastea maite nuen, bereziki historian, ikasle handiägo baten liburua hartuz haren taldea errientsaren buleägo aitzinean bildua zegoelarik”*.

2. mailako ikasketak Mauleko Saint François (d’Assise) ikastetxe katolikoan (1947-1953) eta gero Uztaritzeko Saint François

Xavier delakoan (1953-54) egin zituen. Historia eta olerkia zituen maiteenik, baina zientzietan ere moldatuz.

Gero laborantza ikasketak egin zituen Angersen, Mendebaldeko Unibertsitate Katolikoaren baitan, jesuitek kudeatzen zuten Ecole Supérieure d'Agriculture d'Angers delakoan (Frantzia, 1954-1957), agronomian ingeniaria bilakatzuz. Agronomia zinez maite zuen eta hau da bere ikasketez erraten duena:

Ikasketak oso beteak ziren, hiru uda pasatuz "stages" batzuetan, araberako txostenekin, eta ondotik, ene oguz eta kasa, beste urte bat "stage" egin nuen (1957-1958), aitzinetik egin ez nuen prestakuntza urtearen orde: dossier bikainari esker prestakuntza horretara ez ninduten behartu, baina gero nire burua berdexko aurkitu nuen, eta beroan bero zohitzeko beharra sentitu.

Urtebeteko ikastaldi horren baitan, Lapurdin Gereziatako Garroa eskolan irakasten hasi zen Jean Louis, 1958ko urtarriletik apirilera, lehen mailatik landa hiru neguz hilabeteen aste betez laborantzako gaietan txandaka ikasten zuten mutiko gazteekin. Gero udaraino, ber tokitik, etxaldez etxalde laborariei aholku ematen zebilen ingeniari baten laguntzen ari izan zen, laborantza berri pasatzeko unea baitzen, bereziki amerikar arto haziekin.

Baina 1958 eta 1960 artean Frantziak Aljerian eramaten zuen gerlara joan behar izan zuen Jean Louis-k. Hogeita zazpi hilabetez egon zen han, eta gehienik Sahara basamortuan (kasik bi urtez). Jean Louis-k garai horrez oroitzapen onik ez du eta hau da azpimarratzen duena:

Nahiz ez zitzaidan tiro bakar baten botatzeko ez eta jasateko aldirik gertatu, zinez oroitzapen txarra gelditu zait, Aljerian ene burua okupatzaile arrotz eta funtsean hango herritarren etsai ikusten bainuen, aleman soldaduak munduko bigarren gerla denboran Zuberoan ikusi nituen bezala.

Badakigu aleman okupatzaileen aurkako borrokari buruz *Xiberoko Makia* pastoralara idatzi duela, 2001ean Sohütan emana izan zena. Eta Aljeriari buruz, *Abdelkader trajeria*, orain arte emana izan ez dena.

Laborantzan irakasle

Agronomian ingeniaria izanez, Jean Louis Davant agronomia irakasle izan da 35 urtez Hazparnen. Aljeriako gerlatik landa, 1961ean, Piarres Charrittonen zuzendaritzapean Hazparneko Laborantza Eskolako sortzaileetarik bat izan zen. Eskola horren lehenbiziko izena Ecole d'Agriculture du Pays Basque izan zen. 1990 urteetan izena aldatu zen, Lycée Agricole et Horticole Privé (LAHP) du Pays Basque. Orain Lycée Armand David deitzen da, XIX. mendeko ezepletar misiolari naturalista jakintsuaren izena harturik.

1995ean, Hazparneko Laborantza Eskolan irakasle izatetik (1961-1995), erretiroa hartu zuen, bere indarrak oro euskarari, idazketari, Euskal Herriari emanaz.

Hau da irakaskuntza garai horrez erraten diguna:

Irakaskuntza gustatzen zitzaidan nihauk dakitanaren banatzea maite baitut, eta gazteekin lan egitea opari ederra baitzait, nahiz ez den beti errex. Irakasleak nagusiki inguruko familietarik zetozkigun. Haatik hasieran bigarren mailako laborantza eskola bakarra baitzen Hazparnekoa, irakasleak urrunagotik ere bazituen, bereziki Zuberoatik eta Landetarik. Baina laster gisa bereko ikastetxeak ugaritu ziren, eta beraz urrungo irakasle mota hori gutitu zitzaigun. Gero Paue-Montardoneko lizeo publikoak eta Donapaleuko Jean Errecart lizeo pribatuak konkurrentzia gogorra egin ziguten, eta bazterturik bezala gelditu ginen laborantza eremuko zokoan, kostari eta mugari bizkarrez. Beraz baratzezaintzara pasatu ginen, publiko hiritarrago bat bilduz eta holaz arrakasta berri bat erdietsi genuen.

Euskarak toki guti zuen irakaskuntzan. Oren bedera azken bi klaseetan. Ikasturte batean literaturako testu batzuk lantzen zituzten, eta bestean Euskal Herriko historiaren laburpen bat ikusten.

Familia – Fededuna

Erran bezala Larrabilen sortu zen Jean Louis, Zabalaina etxaldean, eta ondoan bizi da familiarekin, Aizagerria etxean. Bi alaba baditu, Maddi eta Xantiana. Fedea familiarengatik hartu du Jean Louis-k, eta Joana Idiart emazteak halaber. Hau Amendüzen sortua da, Amikuzen beraz, Jauberria baserrian, Larrabiletik 20 kilometrora.

Bere fedea, politikan bezala, Jean Louis Davant engaiatzera eraman du. Herri Ekintza kristau taldeko burua izan zen, 1962tik 1969ra. 1968an Fededunak taldearen sorreran parte hartu zuen, Jean Hiriart-Urruti eta beste lagun batzuekin. Zuberoko parrokiako *Autour du clocher - Zeinützülia* berripaperean euskaraz idazten du erregularki, 1992. urteaz geroztik hilabetero.

Hori da fedea nola ikusten duen, kontzientziaren askatasuna aitzinaraziz:

Fedea gaurko Europan eta bereziki Euskal Herrian anomalia bat bezala ikusia da, eta fisikaren legeetarik neurtuz hala litzateke. Baina beste dimentsio batean gaudela ohar-tzen ez dena oker dabil. Zientziak ezin du frogatu Jinkorik baden ala ez, bakoitzak bere hautua egin dezala. Bigarren galdera handia, Jesu Kristo Jainko den ala ez: hor ere bakoitzak ahal duen bezala ihardets bezala. Niri fedea on egiten dit, indar ematen, eta hori bera nahikoa zait, nahiz beste argumenturik ere banukeen. Oroz gainera kontzientziaren askatasunari atxikia nago, determinismo guzien gainera.

Idazlea eta historialaria

Euskaraz idazten hasi zen Jean Louis Euskaltzaleen Biltzarrak maila ezberdinetako eskoletan urtero antolatzen zituen lehiaketan kariara. 1952an bigarren lekua hartu zuen eta 1953an lehena banatu Jean Pierre Larramendi hazpandar adiskide zenarekin, biak Maulen ikaskide zirela. Gero Euskaldun Gazterriako *Gazte* hilabetekarian agertu zen 1957ko udazketetik.

Idazle emankorra da Jean Louis Davant. Literatura genero ezberdinetan eta historian, bereziki Euskal Herriko historian, lan egin du. 1980an literaturan sartu zen. Eta, geroztik, genero anitz landu ditu: poesia, eleberria, saiakera, haur literatura frantses ipuin andana euskaratuz eta antzerkia pastoralarekin. Poesia eta historia maite ditu bereziki: “*Poesia eta historia ditut pasio nagusiak. Poesia bereziki askatasunaren eremua zait, batzuetan ihesbidea. Biak juntatzen dira trajeria / pastoralean*”.


Hamar pastoralen idazlea da (ikus zerrenda bibliografian), eta pastoral idazle emankorrenetan dago. Bere ustez, pastoralaren egituran nukleo hori atxiki behar da: epopeia, hiru ateak, hiru koloreak, ibilaldi erritualak, bertso arruntetan erabiltzen den gregoriano etorkiko kantagintza. Gaurko giroan ez du gehiegi sartu behar pastoralak, zentzuna eta oreka atxikiz, anakronismoa mugatuz. Pastoraleko testua trajeria deitzen da, epopeia da, ez tragedia bakarrik. Komedia alderdiak ere baditu trajeriak, momentu lasaiak eta alaiak (elkarrizketa, in *Erlea* aldizkaria, 2016, 10. zenbakia).

Historian, Euskal Herriko historiak frantsesez idatzi zuen saiakera, *Histoire du Pays Basque* (1970), biziki arrakastatsu izan zen. 2007tik goiti hamaikagarren aldiz argitaratu zen, *Histoire du peuple basque* izenburuarekin. Gaztelaniara ere itzulirik izan da.

Lan horren bilakaeraz denboran zehar, hau da Jean Louis-k dioena, zintzotasun intelektuala erakutsiz:

Aitortzen dut lehenik lan militantea egin nuela, konprometitua, sinplista, beroa, franko manikeista. Gero emeki-emeki, ediziotik ediziora, barnatu dut, zabaldu, hobeki dokumentatu, urruntasun eta hoztasun gehiago hartu, azkenean obra zientifiko batera helduz ene ustetan, historia zientifikoa izan daitekeen heinean.

Kultura eta aldizkari akademiko anitzetan idatzi du 1957az geroz, prentsan ere. Aldizkari horietan artikuluak idatzi ditu, euskaraz zein frantsesez, alor anitz landuz: *Anaitasuna*, *Argia*, *Autour du clocher - Zeinützülia*, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, *Branka*, *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts de*



Bayonne, Bulletin du Musée Basque, Egan, Egia, Egin, Enbata, Euskaldunak, Euskaldunon Egunkaria, Euskera, Gazte, Hermes, Herria, Herriz-Herri, Iker, Jakin, Gara, Laborari, Larrun, Le Journal du Pays Basque, Maiatz, Nabarralde, U.E.U., Vasconia, Zabal, Zehatz, Zuzen, eta abar. Branka (1971), Zuzen (1972), Zabal (1973-1976) eta Zehatz (1977-1980) aldizkarietako zuzendari-tzakide izan da. Ikergaiak horiek dira, besteak beste: ekonomia, erlijioa, euskara, gizarte egoera, historia, kultura, laborantza, literatura, politika...

Euskaltzaina eta euskara

Literaturan bezala, Jean Louis Davanten ibilbidea biziki eman-korra izan da Euskaltzaindian. 1965eko irailaren 24an euskaltzain urgazle izendatua izan zen Piarres Lafitteri esker, eta euskaltzain oso 1975eko otsailaren 28an. Guillaume Epherreren ondotik zubereraren ordezkari izanez, 12. aulkia eskuratu zuen.

Bere sarrera hitzaldia euskaltzain oso izateko, Maulen, 1976ko agorriaren 22an irakurri zuen, bi zuberotar famatu aipatuz, Antoine d'Abbadia eta Augustin Xaho. Euskaltzaindian onomastikaren eta hiztegi-gintzaren alorretan aritu da bereziki. 1999an, adibidez, *Zuberoako herri eta herritarren izendegia* egin zuen, beste zenbaitekin, eta erabili ziren epaibideak aurkeztu zituen.

Ekintza gogoangarrietan, batek markatu zuen:

Oroitzapen berezi bat atxiki dut Bai Euskarari kanpainaren estrenaldiaz, 1978ko maiatzaren 17an Bilboko San Mames futbol zelaian, 45.000 jenderen aitzinean hitza hartu nuelarik, pentsatzen ahal duzuen zirrara bihotzean.

Orain euskaltzain emeritua da 2010eko uztailaren 23tik. Hiztegi Batuko lantaldearen aholkularia da eta, bistan da, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n zubereraren eta Iparraldeko hizkeren presentzia zaintzen du.

Ikusiko dugun bezala, Jean Louis Davant euskara batua-ren sortzaileen artean da, baita zubereraren sustatzaileetarik

jakintzu bat ere. Harendako euskara batua eta euskalkiak etsaiak ez dira. Alderantziz ere, euskalkiek euskara batua hazten dute, eta bata zein besteak beharrezkoak dira euskara biziartzeko.


1963an, Baionako Euskal Idazkaritza elkarteak Cordeliers karrikan alokatzen zuen egoitzan, talde lan erabakigarri batean sartu zen Jean Louis, elkarte horren kide izanez. Lan horren helburua zen euskara idatziaren batasunari bidea irekitzea, ortografiako lege orokor batzuk proposatuz. Hitz zenbaiten ortografia, izen zenbaiten deklinabidea (*mendi* eta *haran* bizigabeak, *seme* eta *gizon* bizidunak, izen berezi batzuk) eta aditz laguntzaileen jokaeraren zati txiki bat landu zituzten. Urte batez, hilabetero, Txillardegi eta beste sei lankiderekin bildu zen. Eta Euskal Idazkaritzaren proposamenak 1964ko agorrilaren 29-30eko bilzarrean aurkeztu zituzten Baionan, Piarres Lafitte euskaltzainaren zuzendaritzapean. Jean Louis-k irekitze mintzaldia egin zuen.

Hona zati bat:

Hemen bilduak gera Euskal Idazkaritza deritzan batzordearen barneetan, Euskarari batasun gehiagoren emaiteko xedeaz beterik. Zuek bildu zaituztegu, idazle ta irakasle jaun-andereak, zuek duzuelakotz, Euskaltzaindiaren itzulian Euskara gehienik zabaltzen, hedatzen, osotzen eta batetartzen ahal.

Txostenaren aitzinsolasean, hori irakur daiteke: *“Batasunari buruz, euskaltzale guziei erabaki hauek betetzen hasteko eskatzen diegu, eta bereziki Euskaltzaindiari egiten diogu dei bat, bere aipamen guziaz gure erabaki hauek aztertu ondoren onar ditzan”*. Bazekiten euskararen batasunean Euskaltzaindiak zer paper erabakigarria izan lezakeen. Eta hau da gertatu zena.

Euskaltzaindia, bere 50. urte betetzea ospatzeko, 1968ko urriaren 3an, 4an eta 5ean bildu zen Arantzazun (Gipuzkoa) eta Baionako erabakiak ontzat eman zituen, Koldo Mitxelena euskaltzainak aurkeztu zuen txostena bere egitean. Batasunaren aldeko eta kontrakoan artean eztabaidak anitz eta beroak izan ziren. Baina Koldo Mitxelenak *“Ezin-bestekoa, hil edo bizikoa, dela uste*



dugu euskera batasun bidean jartzea...” idatzi zuena kontuan hartu zuten, eta 1968ko biltzarraz geroz euskararen batasunak bere bidea egin du, euskara batuarekin. Ageri da Jean Louis Davant zuberotarrak bere harria ekarri diola euskararen batasun horri.

Euskara ikasteko material pedagogikoa behar-beharrezkoa zen eta da, eta alor horretan ere Jean Louis Davantek lan egin du. Uztaritzeko lkas euskal pedagogia zentroarendako (Lapurdi), eskola liburu, haurrendako ipuin eta album anitzen hizkuntza egokitu du, itzulpen anitz egin ditu, batzuk batuan, gehiago zubereraz. 1976an hasi zen haurrendako lau ipuin frantsesetik euskaratzen, *Adixkide onak*, *Ahuntza eta pittikak*, *Gatu ttiki galdua* eta *Hiru xerri ttipi*, 2012an bururatzeko errusiar tradizioko ipuin bat euskaratuz, zubereraz, *Bilürre karakoil eta hiru hartzak*, eta euskara batuaz, *Ilurre kixkur eta hiru hartzak*.

UZEI-k argitaratu dituen hiztegi zenbaitetan ere parte hartu du, *Politika hiztegian 1 / 2 / 3 / 4* (1980), *Aziendak hiztegian* (1984) eta *Nekazaritza hiztegian* (1995).

Bestalde, zubereraren idazkera kodifikatzeko lan zenbaitetan parte hartu du eta euskalki hori ongi baliatzeko hainbat mintzal-di egin ditu.

Abertzalea

Bere Euskal Herriaren aldeko engaiamenduak abertzale izatera eraman zuen.

1961eko apirilean *Enbata* kazeta politikoa sortu zuten sei lagunen bilkura batera joan zen lehentze, Michel Eppherre altzürükütar adiskidearen aholkuz. Aitzinetik kultura sailean ari izana zen Euskaldun Gazterian, ikasleen Embatan eta Euskaltzaleen Biltzarran. Laster bide horren mugak ikusirik, onartu zuen politikara pasatu behar zela kulturari babes eta bulzada ofizial bat emateko.

Beraz *Enbata* aldizkari abertzalearen sortzaileetakoa izan zen Baionan. 1962 eta 1963an Itsasun, lehen Aberri Egunak Ipar Euskal Herrian antolatu zituzten. 1963ko Aberri Egunaren kari mugimendu politikoa bilakatu zen *Enbata*. Itsasuko Aberri Egun horretan parte hartu zuen Jean Louis-k. *Enbata* mugimenduaren eta ETaren artean egin zuten antolaketa. “Itsasuko Agiria” irakurri zuten, euskal nazioaren batasuna eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz.

1974an Frantziako Gobernuak *Enbata* legez kanpo ezarri zuen eta Jean Louis EHASEan sartu zen (Euskal Herriko Alderdi Sozialista, 1974-1979) eta gero Euskal Batasuneko kide izan zen (1986-1990). 1975ean, berriz, argitaratu zen *Enbata*, alderdi politiko bati lotua izan gabe.

Hau da 2007an Jean Louisek erran zuena, Agosti Xaho Saria 2007 eskuratu zuelarik:

Ni kristau fedean Abbadiazalea naiz, politikan Xahozalea, eta hau da 1976tik nire mezu nagusia: euskara bego politikaren gainetik, denon altxorra baitugu, eta haren alde lan egin dezagun denok, gure diferentzia guztien goitik, bereziki Zuberoan. Txiki da Zuberoa, eta euskararen aldetik oso nekez ari. Euskaldun irauteko, denen beharra badu.

Erran bezala, Antoine d’Abbadia eta Augustin Xaho izan ziren bere Euskaltzaindian sartzeko hitzaldiko bi aipagaiak eta, era batez, bere biziaren ikusteko moldea laburbiltzen zuten, fedea eta abertzaletasuna, euskara eta Zuberoarekin batera.

Politika arloan, beraz, bere burua abertzale gisa ikusten du. Horra nola orain ikusten dituen abertzaletasuna eta euskaltzale-tasuna. Hor ere eboluzioa agertzen zaigu:

Haatik denbora batez pentsu nuen abertzale izatea euskaltzale izatea baino garrantzitsuago zela. Orain alderantzizkoa zuzenago iduri zait. Euskal politika beharrezkoa da noski, baina mirakulurik ez du egiten, eta gainera zerbitzari egon behar du, oinarrien zaintzale, gure oinarri nagusia euskara delarik: euskaldun egiten gaitu, populu eta nazio egiten gaitu. Iparraldean euskal mugimendua ederki aitzina doa,

nahiz abertzaleak gehiengotik urrun gauden: euskaltzaleen laguntzari esker beren bidea egiten dute Euskal Herriaren aldeko ideiek eta xedeek.

Engaiamendu eta lan bizi luze honen zehar, Jean Louis Davantek sari anitz eta ohore eskuratu ditu. Horiek dira nagusiak, besteak beste: Bai Euskarari kanpainaren sarrera hitzaldia (Bilbo, 1978), Bilboko Aurrezki Kutxaren Resurreccion Maria Azkue Saria (1981), Iruñeko Udal Aurrezki Kutxaren Xalbador Saria (1985), Durangoko Udalaren sari berezia (1986), Mauleko Udalaren Ohorezko Domina (1992), Euskal Idazleen Elkartearen omenaldia (1999), Korrika 13an lehenbiziko lekukoa eraman zuen (Maule, 2003), Euskal Idazleen Biltzarraren omenaldia (Sara, 2004), Agosti Xaho Kultura Elkartearen saria (2007), Nabarralderen saria (Getaria, 2009), eta orain beraz Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria (2016).

Jean Louis-i azken hitza utz diezaiogun, jakinduriaraz beteriko hitza:


Bukatzeko, bi galdera banituzke, lehenik enetzat. Bata: txoriak saririk behar ote du kantatzeagatik? Erantzunik ez dut. Bestea: zer da merezia? Jainkoak badakike, nahiz iduriala ez duen gehiegi kontutan hartzen Ebanjelioaren arabera, ber heinean ordaintzen ditu azken orduko langilea eta lehenekoa.

Gauza bat segurua: goizik hasi nintzela eta geroztik ez gelditu. Urrats asko egin dut, baina zer balio dute, zer ekarri dute? Geroak erranen du, oroitzapenik egoten bada.

Dena dela, sari honetaz eskerrak nire izena bultzatu zuen Euskaltzaindiari eta saria eman didan Eusko Ikaskuntzari. Opari bat bezala hartzen dut, eta faltsukeriarik gabe nire bozkarioa aitortzen. Bihotza pizten dit aitzina joateko. Orain ongi nago buruz ere, beraz hitzematzen dizuet ene sailean ariko naizela ahal dukedano, euskararen eta euskal kulturaren zerbitzuko, Euskal Herriaren eta euskaldunen alde.

Hau da mezu argia. Jean Louis Davant-en ibilbidea ez da hemen bururatzen. Izanen du oraino zertaz gogoeta egin, zer erran, zer idatz. Guri zaigu horren berri izatea.

Données biographiques



Une enfance heureuse en Soule

Jean-Louis Davant est né à Arrast-Larrebieu en Soule, le 5 juillet 1935, à la maison Zabalaïnea de Larrebieu. Son père, Martin Davant (1903-1997) natif de Larrebieu était propriétaire de Zabalaïnea. Sa mère, Marie-Louise Iratçabal (1904-1998), souletine elle aussi, était la dernière fille de la maison Üstübilea à Altçay. Ils étaient tous les deux agriculteurs. Ils ont eu quatre enfants, Jean-Pierre (1933), Jean-Louis, Aña (1936) et Dominique (1943).


Jean-Louis raconte :

J'ai vécu une enfance heureuse à la maison, dans mon quartier de Larrebieu. Nous parlions toujours en basque en famille et dans le village. J'ai commencé à apprendre le français à six ans, quand je suis rentré à l'école publique du village, comme tous mes camarades.

Les études

Jean-Louis a donc fait ses études primaires à l'école publique d'Arrast (1941-1947). *“ J'aimais apprendre, en particulier l'histoire, en prenant le livre d'un élève plus grand quand son groupe se trouvait réuni devant le bureau de la maîtresse ”.*

Il a fait ensuite ses études secondaires au lycée catholique Saint-François (d'Assise) de Mauléon (1947-1953) puis au lycée



Saint-François Xavier d'Ustaritz (1953-54). Ses matières préférées étaient l'histoire et la poésie, mais il se débrouillait aussi en sciences.

Puis il est parti à Angers, à l'Université Catholique de l'Ouest, pour étudier à l'Ecole Supérieure d'Agriculture tenue par les jésuites (France, 1954-1957), et a obtenu son diplôme d'ingénieur agronome. Il aimait beaucoup l'agronomie. Voici ce qu'il nous dit de ses études :

Les études étaient très denses, nous passions trois étés en stage, avec un mémoire à rendre pour chacun, et ensuite, à ma demande et à ma manière, je fis une année supplémentaire de stage (1957-1958), pour rattraper l'année que je n'avais pas faite : on ne m'avait pas demandé de la faire au vu de mon excellente préparation, mais je ne me sentais pas complètement prêt, et je ressentais le besoin de mûrir encore.

Au cours de cette année complète de stage, Jean-Louis a commencé à enseigner les matières agricoles au centre d'apprentissage agricole Garroa de Gerezieta à Mendionde (Labourd) de janvier à avril 1958. Il avait les jeunes gens de premier niveau en stage pendant trois hivers une semaine par mois en alternance. Ensuite, au même endroit, jusqu'à l'été, il a aidé un ingénieur qui allait de ferme en ferme apporter des conseils, car c'était la période où commençait à se développer la nouvelle agriculture, en particulier avec les semences de maïs américain.

Mais entre 1958 et 1960 il dut partir en Algérie où la France menait la guerre. Il est resté vingt-sept mois là-bas, essentiellement dans le désert du Sahara (presque deux ans). Jean-Louis n'a pas de bons souvenirs de cette période et voici ce qu'il en dit :

Même si je n'ai pas eu un seul tir à effectuer et n'en ai reçu aucun, il m'est resté un mauvais souvenir. Je me voyais comme un occupant étranger en Algérie et je me sentais comme un ennemi des gens là-bas, comme j'avais vu en Soule les soldats allemands pendant la seconde guerre mondiale.

Nous savons qu'il a écrit une pastorale sur la résistance aux occupants allemands en Soule, *Xiberoko Makia*, jouée en 2001

à Chéraute. Et une autre au sujet de l'Algérie, *Abdelkader trajeria*, qui n'a pas été jouée pour l'instant.

L'enseignant en agronomie


Suite à l'obtention de son diplôme d'ingénieur agronome, Jean-Louis Davant a enseigné trente-cinq ans à Hasparren. Après la guerre d'Algérie, en 1961, il participe sous la direction de Pierre Charriton à la création de l'Ecole d'agriculture d'Hasparren. Le premier nom de cet établissement scolaire fut Ecole d'Agriculture du Pays Basque. En 1990 son nom changea, Lycée Agricole et Horticole Privé (LAHP) du Pays Basque. Maintenant c'est le Lycée Armand David, prenant le nom du missionnaire savant naturaliste du XIXème siècle, natif d'Espelette.

En 1995, Jean-Louis prend sa retraite d'enseignant en agronomie (1961-1995), et dès lors consacre toute son énergie à la langue basque, à l'écriture et au Pays Basque.

Voici ce qu'il nous dit de cette période d'enseignant :

L'enseignement me plaisait parce que j'aime transmettre ce que j'ai appris, et travailler avec les jeunes était un beau cadeau pour moi, même si ce n'est pas toujours facile. Les élèves venaient principalement des familles environnantes. Cependant, au début, comme l'école d'Hasparren était le seul établissement secondaire agricole, il y avait aussi des élèves venus de plus loin, surtout de Soule et des Landes. Mais rapidement les établissements scolaires de ce type se répandirent et les élèves venus de plus loin se firent moins nombreux. Le lycée public de Pau-Montardon en Béarn et le lycée privé Jean Errecart de Saint-Palais nous firent une rude concurrence, et nous nous retrouvâmes comme rejetés dans le domaine de l'agriculture entre la côte et la frontière. Alors nous nous orientâmes vers le jardinage, accueillant un public plus citadin et retrouvant un nouvel élan.

Le basque avait peu de place dans l'enseignement. Une heure dans chacun des deux derniers niveaux. Une année



scolaire ils travaillaient des textes littéraires, et l'autre un aperçu de l'histoire du Pays basque.

La famille – Le croyant

Comme nous l'avons dit Jean-Louis Davant est né à Larrebieu, à la maison Zabalaina, et il vit toujours à côté, à la maison Aizagerria. Il a deux filles, Maddi et Xantiana. La foi il l'a reçue en famille, comme Joana Idiart son épouse. Celle-ci est née à Amendeuix, en Pays de Mixe, à la maison Jauberria, à vingt kilomètres de Larrebieu.

Sa foi, comme en politique, a amené Jean-Louis à s'engager. Il a ainsi été à la tête du groupe chrétien Herri Ekintza, de 1962 à 1969. En 1968 il participe à la création du groupe Fededunak, avec Jean Hiriart-Urruty et quelques autres amis. Tous les mois depuis 1992, il écrit dans le bulletin paroissial de la Soule *Autour du clocher – Zeinützülia*.

Voici comment il voit la foi, mettant en avant la liberté de conscience :

La foi dans l'Europe actuelle et en particulier au Pays Basque est vue comme une anomalie, et si on se basait sur les lois de la physique, ce serait le cas. Mais celui qui ne se rend pas compte que nous sommes dans une autre dimension se trompe. La science ne peut pas prouver si Dieu existe ou pas. Que chacun fasse son choix. La deuxième grande question est la suivante, Jésus-Christ est-il Dieu ou pas : là aussi que chacun réponde comme il le peut. Ma foi me fait du bien, elle me donne de la force, et rien que cela me suffit, même si j'aurais d'autres arguments. Mais par-dessus tout je suis attaché à la liberté de conscience, au-delà de tous les déterminismes.

L'écrivain et l'historien

Jean-Louis a commencé à écrire en basque pour des concours qu'organisait chaque année Euskaltzaleen Biltzarra

aux différents niveaux scolaires. En 1952 il obtint le second prix et en 1953 le premier conjointement avec son ami d'Hasparren Jean Pierre Larramendi, alors qu'ils étaient tous deux élèves à Mauléon. Ensuite il a commencé dans le mensuel *Gazte de Euskaldun Gazteria* à partir de l'été 1957.


Jean-Louis Davant est un écrivain prolifique. Il s'est intéressé à tous les genres littéraires et également à l'histoire, et en particulier à celle du Pays Basque. Il est entré en littérature en 1980. Et depuis il a travaillé tous les genres : poésie, roman, essai, littérature pour enfants en traduisant en basque des contes en français, et théâtre avec la pastorale. C'est la poésie et l'histoire qu'il préfère : “ *La poésie et l'histoire sont mes plus grandes passions. Je vois la poésie comme le domaine de la liberté, parfois une façon de s'évader. Les deux se rejoignent dans la pastorale* ”.

Il est l'auteur de dix pastorales (voir la liste en bibliographie), et il fait partie des auteurs qui en ont écrite le plus. Selon lui, il faut conserver à la pastorale le noyau suivant : l'épopée, les trois entrées, les trois couleurs, les déplacements rituels, la façon de chanter les vers issue du style grégorien. La pastorale ne doit pas trop rentrer dans l'actualité, elle doit conserver la raison et l'équilibre, en écartant les anachronismes. Le texte de la pastorale s'appelle « *trajeria* », c'est une épopée, et pas seulement une tragédie. La pastorale a des côtés comiques, des moments légers et joyeux (interview, dans la revue *Erlea*, 2016, n°10).

Concernant l'histoire, il a écrit en français un essai sur l'histoire du Pays Basque, *Histoire du Pays Basque* (1970), qui a eu beaucoup de succès. Depuis 2007 on compte onze rééditions sous le titre *Histoire du peuple basque*. Il a été aussi traduit en espagnol.

A propos de l'évolution de ce travail au cours du temps, voici ce que dit Jean-Louis, faisant preuve d'honnêteté intellectuelle :

J'avoue qu'au départ j'avais fait un travail militant, engagé, simpliste, enflammé, très manichéen. Puis peu à



peu, d'édition en édition je l'ai approfondi, élargi, mieux documenté, en prenant plus de distance et de froideur, pour arriver à mon goût à une œuvre scientifique, dans la mesure où l'histoire est scientifique.

Depuis 1957, Jean-Louis a écrit dans de nombreuses revues académiques et culturelles, dans la presse aussi. Il a écrit des articles en basque ou en français, concernant de nombreux domaines, dans les revues suivantes : *Anaitasuna*, *Argia*, *Autour du clocher - Zeinützülia*, *Bat soziolinguistika aldizkaria*, *Branka*, *Bulletin de la Société des Sciences*, *Lettres et Arts de Bayonne*, *Bulletin du Musée Basque*, *Egan*, *Egia*, *Egin*, *Enbata*, *Euskaldunak*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Euskera*, *Gazte*, *Hermes*, *Herria*, *Herriz-Herri*, *Iker*, *Jakin*, *Gara*, *Laborari*, *Larrun*, *Le Journal du Pays Basque*, *Maiatz*, *Nabarralde*, *U.E.U.*, *Vasconia*, *Zabal*, *Zehatz*, *Zuzen*, etc. Il a fait partie de la direction de *Branka* (1971), *Zuzen* (1972), *Zabal* (1973-1976) et *Zehatz* (1977-1980). Les principales thématiques de ses écrits sont les suivantes : la langue basque, la société, l'histoire, la religion, la culture, l'agriculture, l'économie, la littérature, la politique...

L'académicien et la langue basque

